



## **EHU-REN XLIII. UDA IKASTAROAK XXXVI. EUROPAR IKASTAROAK**

**Donostia/San Sebastián. Miramar jauregia**

**Gaia: Hezkuntza-ekitatearen eta eskolatzearen erronkak Euskadin**

**2024, uztailak 4-5**

### **Laburpena eta helburuak**

Ararteko erakundea bereziki kezkatu izan dute beti eskola-segregazioak eta errealitate horrek euskal gizartearen ekitate eta kohesiorako berekin dakartzan ondorioek. Horregatik, gizarte-kohesio hori zaindu eta sustatzeko hain zuzen ere, esku hartzen aritu da behin eta berriz. Arartekoaren ustez, ikasleak modu inklusibo eta orekatuan eskolatzea ahalbidetzen du hezkuntza-plangintzari lotutako helburuak lortzeak, adibidez, ikastetxeetako gizarte-osaeran oreka handiagoa sustatzeak.

Euskal Hezkuntza Eraldatzeko Oinarrien Akordioan hartutako jarduerak konpromisoen ondorioz, nabarmen eguneratu da eskola-plangintzari eta ikasleak onartu eta eskolatzeari buruzko araudia.

Horren erakusgarri dira 30/2023 Dekretua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen Dekretua; 132/2022 Dekretua, azaroaren 2koa, ikasleak ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan onartzeari eta eskolatzeari buruzko Dekretua aldatzen duena; eta 2022ko abenduaren 27ko Agindua, Hezkuntza sailburuarena, ikasleak eskolatzeko prozesu arruntetik kanpo eskolatzeko oinarri arautzaileak ezartzen dituena.

Egindako aldaketek nolabaiteko eztabaida sortu dute, batez ere hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleentzako plazak gordetzeko neurriak. Horrela, 2023-2024 ikasturtean, familia askok Arartekora jo dute, Euskadiko ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozesuetan hartu diren erabakiengatik, eta beren seme-alabentzat ikastetxea libreki aukeratu ahal izatea eskatu dute.



Eskubideak, beharrak eta sentikortasunak bateratu eta ezinbesteko hezkuntza-plangintzan sartzea erronka handia da, ez bakarrik hezkuntza-sistemarentzat, baizik eta baita ere euskal gizarte osoarentzat, izan ere, gizarte kohesionatu baten funtsezko oreka mantendu behar da eta gizarte horrek haur eta nerabe guztien aukera-berdintasuna bermatzeko gauza izan behar du ezagutza, kultura eta etorkizun profesional oparoa eskuratzeko orduan.

Ikastaro hau, argigarriak izan daitezkeen adituen ekarpen eta esperientzien bidez, gune egokia izan daiteke ekitatiboa izan nahi duen hezkuntza-sistema batek aurre egin beharreko erronka nagusiez lasai eztabaidatzeko, arreta berezia eskainiz Euskadin oraintsu hartu diren neurri jakin batzuei, ikasleak onartzearekin eta eskaintza planifikatzearekin zerikusia dutenei.

**Norentzat:** ikasleentzat, hezkuntza-sistema publiko eta pribatuarekin lotutako profesionalentzat, familien elkarteetako ordezkari entzat, gizarte-erakundeentzat eta defentsa-erakundeentzat.



## Uztailak 4. Lehen saioa

9:15 **Aurkezpena / Jardunaldiaren hasiera**

EHU

Manuel Lezertua. Arartekoa

9:45 **I. ponentzia. Zertaz ari gara hezkuntza-ekitateaz mintzo garenean? Nazioarteko ikuspegi bat.**

Hizlaria: Lucas Gortazar. Esadeko (EsadeEcPol) Politika Ekonomikoen Zentroko Hezkuntzako zuzendariordea eta arduraduna, eta Munduko Bankuko Praktika Globaleko Hezkuntzako aholkularia.

Eztabaida.

10:45 **Atsedena.**

11:15 **II. ponentzia: Inklusioa eta hezkuntza-ekitatea hobetzeko estrategiak eta neurriak.**

Hizlaria: Alfonso Echazarra. Hezkuntza-ekitateko espezialista Save the Children erakundearen.

Eztabaida.

12:15 **I. mahai-ingurua: Jarduera egoki batzuk nazioartean.**

Hizlariak:

- Merike Darmony. Ikerketa Ekonomiko eta Sozialen Institutua. Dublin. Irlanda: ibilbide luzea gizarte-desabantaila identifikatzen eta neurtzen.
- Ides Nicaise. Lovainako Unibertsitate Katolikoa. Flandes: eskolatzeko tokiko plataformak.

Eztabaida.

14:00 **Saioaren amaiera.**



## Uztailak 5. Bigarren saioa

9:00 **III. ponentzia: Ikasle kalteberak eta onarpena: identifikazioa, gardentasuna, gobernantza.**

Hizlaria: Xavier Bonal i Sarró, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Soziologia Saileko Soziologiako katedraduna.

9:45 **IV. ponentzia: Euskadin hezkuntza-segregazioari heltzeko hartu diren neurriak**

Hizlaria: Eduardo Ubieta. ISEI-IVEIko zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

10:15 **V. ponentzia. Hezkuntza-segregazioaren bilakaera aztertzea.**

Hizlaria: María Segurola. Bofill fundazioa. Udal eremuko segregazioaren aurkako politikan aditua eta eskolatzeko orekatuko politikei buruzko hainbat gida eta txostenen egilea.

Eztabaida.

11:15 **Atsedena.**

11:45 **II. mahai-ingurua: Etorkizunari begira. Euskadin hezkuntza-ekitatea lortzeko erronkak aztertu eta baloratzea.**

Hizlariak:

- Julia Shershneva. EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea.
- Álvaro Ferrer. Politologoa, Esadeko (EsadeEcPol) Ekonomia Politiken Zentroko Hezkuntza Politikako ikertzaile afiliatua eta Estatuko Eskola Kontseiluko kide ohia.
- Gonzalo Larruzea. Didaktikan eta Eskola Antolaketan doktorea eta Hezkuntzako ikuskatzaile ohia.
- Francisco Luna Arcos. ISEI-IVEIko zuzendari ohia, Euskadiko Eskola Kontseiluko kide bi etapatan, Estatuko Eskola Kontseiluko kidea.

Moderatzailea: Eva Silván. Silván&Miracle. Gai publikoen estrategiak.

Eztabaida.

13:45 **Itxiera.**  
Inés Ibáñez de Maeztu. Arartekoaren ondokoa

14:00 **Saioaren amaiera.**